

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapena

Vitoria-Gasteizko udaltzaingoko intendente lanpostua izendapen askezetarako hautaketa-prozesuaren oinarriak eta deialdia onestea

Vitoria-Gasteizko Udalak udaltzaingoko intendente lanpostua izendapen askeko prozedura-bidez betetzeko deialdia egin beharra du, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako hirugarren atalak emandako 88/2025 zenbakiko 2025eko otsailaren 27ko epaia betetzeko.

Vitoria-Gasteizko Udaleko lanpostuen zerrenda kontuan hartu da lanpostu horri dagokionez –azken aldaketa, Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko maiatzaren 21eko erabakiaren bidez onartua (2025eko ekainaren 9ko ALHAO, 64. zenbakia)–.

Deialdi honen xede diren lanpostuetarako indarrean dagoen lanpostu-zerrendak izendapen askeko hornikuntza-sistema ezartzen du, zuzendaritzakoa edo erantzukizun berezikoa izateagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 96. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horren araubide juridikoa, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 4ko 58/2023 Dekretuaren 21. artikulutik 26. artikulura bitartean jasotzen da. Beraz, lanpostuak behin betiko esleitzeko, alde aurretik egokitasun-txostena egin behar da, proposamena arrazoitzeko, merezimendu- eta gaitasun-printzipioek eta EKren 9.3, 23. eta 103.3 artikuluetako aginduek eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 535/2014 eta 89/2016 epaien arabera, besteak beste.

Apirilaren 4ko 58/2023 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duena– III. kapituluaren xedatutakoarekin bat egingo da prozedura.

Horren haritik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak –Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau

EBATZI DUT

Lehenena. Hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak onestea, zeintzuk ebazpen honen eranskinean jaso baitira.

Bigarrenena. Hautaketa-prozesu honen deialdia onestea.

Hirugarrena. Ebazpen hau eta bere eranskinak ALHAOn argitaratzea, eta ebazpenaren jakinarazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzea. Azken horrek emango dio hasiera eskabideak aurkezteko epeari.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 24an

Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkaria

JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO

I. ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenen. - Deialdiaren xedea.

1.- Deialdiaren xedea da Gasteizko Udaleko Segurtasun Saileko Udaltzaingoko 0007-intendente lanpostua (9318 dotazio zenbakikoa) izendapen askeko sistema bidez betetzea.

2.- Gasteizko Udaleko Udaltzaingoaren goi-eskalako A taldeko A1 azpitaldera atxikitako lanpostua da.

3.- Osagarriak: Destino-osagarria: 29. Berariazkoa: 10.- Dedikazioa: % 120

4.- Lanpostuaren funtzioak eta eskumenak lanpostuaren katalogoan jasota daude. Katalogo hori udalaren webgunean dago eskuragarri.

Bigarrenen. - Lanpostuak behin betiko betetzeko prozeduran parte hartzeko betekizunak

1. - Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako karrerako funtzionarioek parte hartu ahaliko dute deialdi honetan, baldin eta baldintza orokorrak eta lanpostuen zerrendan ezarritako betekizunak betetzen badituzte, eta egoera hauetakoren batean badaude: zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan, seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzian, genero-indarkeriagatiko eszedentzian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren 86. artikuluan aurreikusitako eszedentzian. Halaber, parte hartu ahal izango dute zerbitzu aktibora Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Testu Bateginaren 92.2 artikuluan aurreikusitako moduan itzultzen diren funtzionarioek.

2. - Era berean, honakoek ere parte hartu ahal izango dute, deialdi honetan aurreikusitako prozeduraren bidez zerbitzu aktibora itzuliz: nahitaezko eszedentzian daudenak, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzuan daudenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren 84. artikuluan xedatutakoaren arabera birgaituak izan direnak, sei hilabetetik gorako eginkizun-etendura egoeran direnak, eta borondatezko eszedentzian daudenak, baldin eta egoera horietarako ezarritako iraute-denbora bete badute.

3.- Hauek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu:

a) Falta larria edo oso larria egin izanagatik eginkizun-etendura irmoko administrazio-egoeran daudenak, egoera horretan dauden bitartean.

b) Lekualdatze-zehapena dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren 140. 2.b) artikuluan jasotakoari jarraituz.

c) Interes partikularragatiko borondatezko eszedentzia-egoeran daudenak, baldin eta egoera horretan indarreko araudian eskatutako gutxieneko denbora eman ez badute.

Hirugarrena.- Eskabideak aurkezteko epea

1.-Hautatze-prozedura honetan parte hartzeko, hamabost egun balioduneko epea dago, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

2.- Eskabidea bide telematikoz aurkeztuko da, www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak atariaren bidez. Eskabidea bide telematikoz aurkeztuko da www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak "Irekita dauden deialdiak" atariaren bidez.

3.- Betekizunak egiaztatzeko agiriak eta merituak izena eman ondoren aurkeztu behar dira – beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik–, atal honetan: "nire hautaketa-prozesuak - Nire merituak - Erantsi merituen PDFa".

4.- Eskabidea aldatu eta parte hartzeko prozesuan atzera egin nahi izanez gero, Erregistro Nagusiaren bitartez tramitatu behar da.

5.- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da betekizunak betetzeko eta, hala badagokio, merezimenduak baloratzeko erreferentzia-data.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren aurkeztutako eskabide edota agiriak ez dira kontuan hartuko.

6.- Organo eskudunak betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatu ahal izango ditu honako hauek kontsultatuta, kasuen arabera: bere erregistroak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroak, administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataforma edo ziurtagiria ematen duen erakundea.

Kasu guztietan egingo dira kontsulta horiek, salbu eta eskatzailea modu arrazoituan aurka agertzen bada eta tratamendu-jardueraren organo arduradunak aurkakotasun hori aintzat hartzen badu. Aurkakotasun arrazoitua adierazten bada, harekin batera nahitaez aurkeztu beharko dira kontsultatzea ukatutako jatorrizko dokumentuak.

Laugarrena.- Lanpostuak izendapen askeko sistema bidez betetzeko prozedura.

1. – Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen apirilaren 4ko 58/2023 Dekretuak 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, izendapena egin aurretik, organo eskudunak diskrezionalki erabakiko du hautagaiak egokiak diren ala ez, lanpostuan jarduteko eskatzen diren betekizunei eta deialdian adierazitako egokitasun-alderdi eta -elementuei dagokienez. Horretarako, curriculum-balorazioak, egokitasun-txostenak, elkarriketak edo deialdian zehaztutako beste prozedura batzuk erabiliko dira.

2. – Egokitasun-txostena egiteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Kategorietan gora egin izana (historiala)
- Lanpostuetako jarduna.
- Izandako azken destinoa.
- Gasteizko Udaltzaingoaren antolamendu- eta funtzionamendu-proiektu bat aurkeztu eta defendatzea.

- Lanpostuko jardunarekin lotutako gaitasunen ebaluazioaren emaitzak: plangintza, antolaketa, taldeen kudeaketa, negoziazioa eta lidergoa.

- Egiaztatutako euskara-maila.

3.- Egokitasun-txostenak egiteko epea apirilaren 4ko 58/2023 Dekretuaren – Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duena– 23. artikuluan finkatzen da.

Egokitasun-txosten hori hamabost egun naturaleko epean emango da, salbu eta organo eskudunak epe hori luzatzea erabakitzen badu modu arrazoituan. Txosten horretan, prozeduran onartutakoetatik egokiena proposatuko da, lanbide-kategoria honetako konpetentzia profesionala eta konfiantzazko osagaia kontuan hartuta – egoitza elektronikoaren bidez argitaratuko da («Nire hautaketa-prozesuak»)-, edo deialdia hutsik uztea proposatuko da.

Bosgarrena. – Lanpostua behin betiko betetzeko prozedura ebaztea.

1.- Funtzio Publikoaren zinegotziaren ebazpenaren bidez esleituko da lanpostua, eta prozedura honetan ezarritakoaren ildotik jakinarazi eta argitaratuko da.

2. – Izendatzeko ebazpena arrazoitu egingo da, hautagaiak deialdian eskatutako betekizunak eta gainerako zehaztapenak betetzen dituen eta izendapena egiteko eskumena aipatuta. Nolanahi ere, ebazpenaren funtsa izango da behar den prozedura betetzea.

3.- - Behin betiko esleipenak borondatezkoak dira, eta ez dute lantokia aldatzearen ondoriozko kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sorraraziko.

Seigarrena.- Izendapen askez behin betiko esleitutako lanpostua uztea

1.- Izendapen askeko sistemaren bidez lanpostuaren behin betiko atxikipenenaren esleipendun diren pertsonak lanpostutik kendu ahal izango dira, nahierara, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren 103.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Izendapen askeko lanpostuetatik kendutako funtzionarioak behin-behinean atxikiko dira beste lanpostu batera, kargua kendu eta hurrengo egunetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen apirilaren 4ko 58/2023 Dekretuaren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Zazpigarrena.- Deialdia ebazteko epea

1. – Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, deialdi hau ebazteko epea luzatu ahal izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.